

## Ekain-go harpean arte-lan ikusgarriak arkitu dira

*Zeruko Argia*, 362. zk., 1970-02-08: 12.

Andoni Albizuri eta Rafael Rezabalek arkitu dituzte, eta Joxe Migel Barandiaran eta Jesus Altuna ari dira ikas-lanak egiten.

Arkitu dana, labarrietako arte-lanen artean sail ederrentxoenetako bat da. (Munibe - 1969, 4go alea: "Ekaingo arpea ta bere aitz-marraziak".

Euskalerrian buru-lana beko malla batean zokoratuta daukagu: ez bait du dirurik ematen.

Diru-neurri hau asko barneratu zaigu azkeneko urte hoietan. Diruz-goiko beste ibil-bideak itxita euki ditugulako, behar bada. Baiña nola-nahi ere, errazegi hartu ditugu zabalik arkitutako beste bide hoietatik.

Lehen ere tximini beltzak ugariago izan ditugu tximini zuriak baiña, eta onen zergatiaren billa hasten bagera, laster arkituko dugu arrazoa: jan beharra. Euskalerrria ez da berez lur aberatsa, eta hemengo ondasuna izerdia izan da. Beraz, lehen tximini beltzak jasotzea ez da lotsagarria; bestalde; nun-nahi, eta hemen ere bai, gizonak lehenik jan egin behar du. Jan eta gero hasten da gizona bere beste beharretaz pentsatzen.

Iñoiz hasten bada!

Guk, era batera esateko, aspaldi ase genituan gose-goseak; urdail-gose haundiak, diot. Baiña hor geratu gera, urdail asearekin. Beste hainbat herritan ase dan jendeak gora-bide hori artu du, tximini beltzen inguruan tximini zuriak sortzen ahalegindu da. Eta tximini hoiek ez diete elkarri kalterik egiten. Bestalde, elkar osatzen dute.

Gorputza eta arima bezala.

Guk ere hemen arima zaindu dugu nolabait: eliza asko egin dugu. Gure gurasoak bederatzi urte bete orduko dotriña ondo ikasiak zirala eta lanera bialtzen zituzten. Ikastola gutxi egin dugu gure Euskalerrrian, eta unibersidadarik ez. Politika honekin noraiño etorri geran ba dakigu. Bistan dago. Gero batzuek haserretu egiten dira gazteek erakusten dituzten ausarkeriekin.

Ez dira konforme, Jaungoikoari eskerrak!

- 2 -

Oraingo hontan Joxe Migel Barandiaran eta Jesus Altunak, gure erriko bi tximini zuri, ez dute buru-laneko toki hau berak arkitu.

Andoni Albizuri eta Rafael Rezabal bi azpeitiar gaztek, egin zuten aurkiberria; honetaz ba dira sei illabete: joan dan ekainan, junioan. Geroztik Barandiaranen eta Altunak egin dute ikas-lan frango, eta *Munibe* izena duan "Sociedad de Ciencias Naturales Aranzadi"ko aldizkarian ematen dituzte berriak.

Arrigarriak gainera.

- 3 -

Bi azpeitiarrak Zestuatik hurbil eta Debako lurretan dagoan Ekain lekuan harpe zulo luze bat arkitu zuten.

Harpe honen sarrera ezaguna zan Sastarrain baserriaren ondoan egiten dute Attolarreka eta Beliosoerrekak elkar. Hortxe dago Ekain mendixka. Ba, bi errekek arkitzen diranetik 15 metro gora dago harpe-zuloa.

Zuloan sartu eta makurtuta eta askotan ahoz behera eta lauoinka ibili ziran bi mutillak; ez alperrik; han arkitu zituzten millaka eta millaka urtez geroz egiñak eta bi mutillen zai zeuden marrazki arriagarri hoiek: 33 zaldi-zuri, 10 bison, 4 ahuntz, 2 basa-ahuntz, 2 artz eta 2 arrain; danera 53; eta zer esan nahi duten ez dakigun beste lerro asko ere bai.

Zer dira marrazki hoiek?

Harpe ormetan egiñak daude. Batzuek margo beltzez, besteak gorritz ere bai; baten bat orlegi antzekoz egiña ere ba omen da. marrazki hoiek buztin gorria eta manganeso beltzez egiñak izan omen dira. Batzuetan harkaitzaren pizza-bideak hartuak omen dira marrazkiaren gidari bezala, eta noizean-behin eten eta pizza-bide hoiek berak eragin eta irudiak egiñak izango omen dira.

Askotan, artista iaioak bere irudiak ildo osatuak ditu.

*Munibeko* idaz-lan honen egilleek, Barandiaran eta Altunak, beren euskerazko laburpen motzean dioten bezala:

"Ekaingo marreztura sailla eder, ikusgarria, labarrietako arte-lanean arteko pillarik ederrentxoenetako bat da: "franco-cantabrico" izena ohi dan arte-motan behintzat. margoz eta ildo egiñak, iduri gehienak oso egokiak dira, gai gardenak beren aideak eta kidekoak erraz gogorazteko eta gure leengizakien ezikera erakusteko. Galdera berriak ere gogoratzen dizkigute. Harpeko zorua ixarratzen degularik, galdera hoientzat erantzuna ager genezake".

Marrazki batzuek kalzitaz ezalita omen daude, baiña gehienak agerian.

Eta noizkoak dira?

Harri-arokoak, noski. Harri-aroa da gizonak harria bere lanerako erreminta bezala ebakita bakarrik, leundu gabe, erabiltzen zuan garaia; baiña aro hau oso zabala da; harri-arorretan arte-marrazki hoiek noizkoak diran jakiteko oraindik lurpean egin behar dituzte billaketak. Dagoeneko, eta eskaratzean egin dituzten azterketa arin batzuen bidez arkitu dituzte garai artako sutoki, lebanes, eta beste ondakiñak. Marrazki hoiek margoz gainera beste ziri-lana ere ba dutela esan dugu, eta lan hori egiteko puntadun zerbait edo hortzak zituan gai batez egiñak izan omen dira. Edesti aurreko gertaerez orain arte egin diran jakin-lanak ez omen diete gure bi jakintsuei. Ekaingo harpea estudiatzen lagundiko; nabarmenki bereziak dira nonbait; baiña hoien ustez, emengo lanak; gutxi-gora-behera Leroi-Gourjan-eko eskemako eredukoak omen dira.

- 4 -

Harpea ez dago agerian, ez.

Sarrera bera, bai, ikusten erraza da: goraka 1,20 metro eta zabalean 2,30 metro duan arku antzeko zulo bat da; hau bakarra zan ezaguna. Aurrerago joateko eskuitan dagoan zirrikito estu batetik hartu behar da, baiña ia harriz estalia omen zegoen; hortik 15 metroko beherakada etzanda eta narrazka egin behar izandu zuten gazteek; orduan zutik ibili ahal izan ziran zelaitxo batera heldu ziran; gero, gora-bide bat egin eta aurreraxeago arkitu zuten Auntzeta deitu dioten tokia: bi metro zabal sarrera, eta luzera hamairu metro. Hemendik aurrera, beste 50 metro inguruko beste igaro-tokia, gero 13 metro inguruko beste bat, eta orain Artzeia deitzen dioten lekua arkitu zuten; oraindik betik gorako zati bat ibili eta Azken-zaldea izena jarri dioten lekura heldu ziran.

Harkaitz-zulo honetan sahetseko beste zulo eta ibil-bide estuak ere ba dira, noski.

Harpe honen zola, trosketa da (estalagmitak), eta azken aldera bakarrik da harkaitza, hau batzuetan karekizkoarekin estalia badago ere. Lurra ta hormak legor samarrak dagoz, udan behintzat; joandanez udan egon baitziran harpe honetan jakinlanak egiten.

Troska edo estalagmiten itxurak dionez, azkeneko mendeetan ez da harpe honetara gizonik sartu.

- 5 -

Arkitu diran irudiak 60-tik gora dira, baiña lehen esan bezala, 53 dira garbi basa-abere itxurakoak.

Ba dira burutik-isatsera metro bat luze diranak, eta baita 10 zentimetro bakarrik dituen ahuntzak ere. Hoiien hartean, neurri askotakoak. Batzuek marraztuak daude, besteak margotuak, eta beste batzuek margoztuak eta ildo zuluak izan dira. Gehienetan beltzez marraztuak izan dira, baiña gorri ere ba dira, ta bi-margokoak edo bikromatuak ere bai.

Marrazki hoietan berezi dan gauza bat: anketan zearka ageri diran lerro batzuek.

Zazpi zaldik dituzte horrelako lerroak izter eta besondoetan. Erakuspide bezala: Ramu (Ribadesella) harpeko zaldietan eta, dirudienez, Altxerriko bisonte batean.

Eta ezker-eskuiak ba dira hemen ere:

Hogei-ta hamairu zalditatik, 18-k eskultara begiratzen dute, eta 12-k bakarrik ezkerretara. Gauzak bestela jarrita: 17-k harpe zulora begiratzen dute, eta 13 urteerara begira daude.

Zulotik urtetzeko bildurrak ziranak gehiago ziran nunbait!

Bisonteetatik: 6-k eskuitara begiratzen dute ta 4-k ezkerretara: artzak: danak eskuitara eta barrura begira daude; basa-ahuntza da ezkertia, kanpora begira dagoana; auntza bat ere ezkerretara begira dago, baiña beste bat eskuitara.

Hoietan arrak zeintzuk diren guk ez jakin!

- 6 -

Irudi hoietzaz gaiñera ba dira emen beste arrasto batzuek ere.

Batez ere arrasto-okerrak edo adar-itxurakoak hartu dituzte kontuan gure jakintsuak. Hoiek irudi-sailen aurrean edo ondorean omen daude, eta arrastoak guk ez dakigun zerbait esan nahi ote duten-ba. Barandiaren eta Altunak diotenez, ba liteke *kutunak* bezelako zerbait izatea. Abereak zaintzeko gure baserrietako ikulluetan maiz jartzen diran urritz edo erramu makillak gogoraazten dizkieten nonbat; eta baita gelak zaintzeko kutun bezala erabiltzen dan itaia ere; aintzineko ipuietan azaltzen dan botatzeko-iskilloa ere bai, eta, azkenik, baita botatzeko ziran makilak (boomerang) ere.

Noski, harri-arotik oso urruti gaude gu garai artako gizonak arrasto hoiekin zer esan nahi zuten zeatz jakiteko.

Baiña gure herrian hain ezagun diran ipui eta mitoetan, harpetan azaltzen diran zaldi eta txal gorri eta ahuntzen irudiko igeltxoak ba dira ugari.